

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Uaouh, Miau & Yeah... Vol. I.
Gora Gora Kids.
Amateur Rekords.
Iraupena: 23'12". 5 euro.

Kantaren muinera joatearen jolasa

ROCK-AND-ROLLA barru-barrutik datorren orroa, soinu gordin eta basatia da, eta horixe bera askatzea erabaki dute Iruñea aldeko lau bizizale hauek (bitxikeria moduan kazetaritzarekin lotura zuzena dutela esan behar da). Oraindik instrumentuak jotzen ez dakitela dioten arren, 50eko hamarkadako rock-and-roll benetako enari eta garageari txinpartak ateratzen saiatzen dira primitibismoaren haritik, baita lortu ere, euskarari gaztelaniazko eta ingelesezko

printza batzuk gehituta. Horrez gain, gai dira tarteka distortsioak, giro ilunagoak eta baita siniestroagoak ere lantzeko (horra hor *Zure ateak* bereizgarria, esaterako), nahiz eta badirudien halakoei —emaitza oso ona lortzen dute— azkar aspertzen dituztela, dibertsio kutsakorren alde. Zertarako da bada rock-and-rollera? Akabo tontake-riak eta utzi askatzen!

www.myspace.com/goragorakids

Xabi Sagardia - Gora Gora Kids

«Jotzen ez zekiten talde askok musikari gauza ikaragarriak eman dizkiote»

Kazetariok, hobe dugu birtuosismoa alde batera utzi eta ondo pasatzea? Afizio berantiarra izan da?

Taldeko gehienoi birtuosismoak gogaitu egin gaitu beti, gainera gure musika tresnen erabilera mugatua da. Berez ez da afizio berantiarra. Igor eta biok nerabezaroan hasi ginen. Igorrek jarraitu zuen musika egiten, baina gainontzekook lehen aldiz ekin diogu orain. Beti esaten dugu 18 urterekin egin behar izan genuena hogeita hamapikorekin egiten ari garela. Baina orain etorri da eta oso pozik gaude.

Musika taldeak kritikatu aurretik musika jotzen ikasi beharra dagoela esan ohi da. Hain serio hartu duzue?

Kar, kar, kar. Behin esan zidaten kazetari musikaririk ez zirela. Hobe da zerbait jakitea gauzek zer nolako lana suposatzen duten

hobe ulertzeko. Baina uste dut musika jotzen jakitea baino, musika asko eta asko entzun behar dela kazetari musikaririk onak izateko.

Talde asko entzuteak erakutsi zizuen edonork egin dezakeela talde bat?

Edonork egin dezake, baina ez dagoena txarra edo ona delako, baizik eta norbaitek behar hori sentituz gero eskubide osoa duelako. Punkak hori erakutsi zigun, eta

musikari gauza ikaragarriak eman dizkiote jotzen ez zekiten talde askok.

David Attenborough. Rock-and-rollera da dagoen musika biluzi eta naturala (artifiziala ez dena)?

Taldean hainbat eztabaida izan dugu honen inguruan. Baina ene ustez bai. Nik rock and rolla eta rocka bereizten ditut. Rock and rolla beltzen r&b-tik dator: abesti motzak eta biziak, oso dibertigarriak, gauean dantzatzeko, irten aurretik entzuteko. Onomatopieak, animalien hotsak, amodio eta desamodiozko kantak... Gitarra soloak motzak dira, baina gustu handiz eginak, ikaragarriak! Beranduago rocka etorri zen, kanta luzeak... eta guk ere rock abestiak ditugu, baina garagearen "urgentzia" hori bilatzen dugu gehiago. ■

